Iragarkiak

Obra, Zerbitzu eta Horniduren Enkanteak eta Lehiaketak

EKONOMIA ETA OGASUN SAILA

4846

IRAGARKIA, Herrizaingoko sailburuaren agindua argitara emateko dena. Horren bidez, zuzendu egiten da «Ertzaintzaren Erandioko Zentraleko segurtasun-zerbitzua» xede duen zerbitzu-espedientea egiteko iragarkiaren bidez sustatutako lizitazioaren sailkapena (C02/015/2009 espedientea). Iragarkia 2009ko abuztuaren 24ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen.

2009ko abuztuaren 24ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, 161. zenbakian, kontratu hori esleitzeko prozedura iragarri zen, eta Herrizaingoko sailburuak 2009ko abuztuaren 25ean agindu bat eman zuen, honako xedapen-zatia duen agindua hain zuzen ere:

1.– Errakuntza bat egin da administrazio-klausula zehatzen pleguan, 29.1 atalean hain zuzen, «Eskatutako sailkapena» dioen horretan.

2.– Zuzendu egin behar da «Ertzaintzaren Erandioko Zentraleko segurtasun-zerbitzua» xede duen kontratua (C02/015/2009 espedientea) esleitzeko iragarkiaren bidez sustatutako lizitazioan egindako errakuntza. Iragarkia 2009ko abuztuaren 24ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen, 161. zenbakian.

3.– Zuzendu egin behar da administrazio-klausula zehatzen pleguaren karatulako 29.1 puntuan dagoen errakuntza, eskatutako sailkapen zuzena adierazita, alegia, M taldea, 2 azpitaldea, D kategoria.

Legez ezarritako epeak betetzeko, honako hauek izango dira agiriak eta argibideak jasotzeko eguna eta eskaintzak aurkezteko azken eguna: 2009ko irailaren 21a, goizeko 10:00etan. Gonbidapen-orrian zehaztuko da zein egunetan irekiko diren eskaintza teknikoak eta eskaintza ekonomikoak.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko abuztuaren 28a.

Ogasun eta Finantzetako sailburuaren 1988ko otsailaren 17ko Agindua betez.

Kontratazio Zerbitzuko burua,
FRANCISCO JAVIER ELOLA DEL RÍO.

Anuncios

Subastas y Concursos de Obras, Servicios y Suministros

DEPARTAMENTO DE ECONOMÍA Y HACIENDA

4846

ANUNCIO por el que se da publicidad a la Orden del Consejero de Interior, por la que se rectifica la clasificación de la licitación promovida mediante anuncio publicado en el Boletín Oficial del País Vasco el 24 de agosto de 2009 para la realización del expediente de servicios que tiene por objeto «Servicio de Seguridad en la Central de la Ertzaintza de Erandio» (Expediente: C02/015/2009).

En el expediente de contratación de referencia, cuyo procedimiento para la adjudicación del contrato fue anunciado en el Boletín Oficial del País Vasco n.º 161, de 24 de agosto de 2009, el Consejero de Interior dictó con fecha 25 de agosto de 2009 Orden en cuya parte dispositiva se establece:

1.– Se ha producido un error de redacción en la carátula del pliego de cláusulas administrativas particulares, en el apartado 29.1, referente a la «Clasificación exigida».

2.– Rectificar el error de la licitación promovida, mediante anuncio publicado en el en el Boletín Oficial del País Vasco n.º 161 de fecha 24 de agosto de 2009, para la adjudicación del contrato que tiene por objeto «Servicio de Seguridad en la Central de la Ertzaintza de Erandio» (Expediente: C02/015/2009).

3.– Procédase a rectificar el error en el punto 29.1 de la carátula del pliego de cláusulas administrativas particulares indicando la clasificación exigida correcta, es decir, Grupo M, Subgrupo 2, Categoría D.

En orden a respetar los plazos establecidos por ley, la nueva fecha de obtención de documentos e información y fecha límite de presentación de ofertas es la siguiente: 21 de septiembre de 2009 a las 10:00 h La fecha de la apertura de las ofertas técnicas y la fecha de la apertura de las ofertas económicas se especificará en la correspondiente invitación.

En Vitoria-Gasteiz, a 28 de agosto de 2009.

En razón de la Orden de 17 de febrero de 1988, del Consejero de Hacienda y Finanzas.

El Jefe del Servicio de Contratación,
FRANCISCO JAVIER ELOLA DEL RÍO.